



AFRIKAR JATORRIKO BIZTANLERIA EAEn

Afrikar jatorriko biztanleria EAEn izeneko 51. begirada honen bidez hasiko dugu EAEn bizi diren etorkin-talde handien ezau-garri nagusiak aztertzeko begiraden saila. Hain zuzen ere, lau talde aztertuko ditugu: afrikarrak, asiarrak, europarrak eta latinoamerikarrak. Horretarako, talde bakoitzaren alderdi soziodemografikoei erreparatuko diegu –kokapen geografikoa, jatorria, adina, sexua...–, baina taldearen integrazioarekin lotutako elementuak ere aztertuko ditugu; esaterako, erregularizazioa, lan-merkatuan duten egoera, hezkuntza-maila, gizarte-harremanak eta migrazio-proiektua.

Afrikar etorkinen taldekoak Magrebeoak dira, batez ere, Arabako lurralde historikoan da handiena haien ehunekoa, eta gizonezkoak dira nagusi, nabarmen. Integrazio-prozesuari dagokionez, azpimarratzekoa da talde horrek dituela ahultasun-eta prekariotasun-maila altuenak. Horrela adierazten dute zenbait datuk; esaterako, lan-merkatuan sartzearekin eta ikaske-ta-mailarekin lotutako datuek. Era berean, bertako biztanleriaren aldetik, talde horrek jasotzen du balorazio txarra, eta horrek integrazio-prozesurako zailtasunak areagotu egiten ditu.

Afrikar etorkinen taldeari buruzko migrazio-datuak

1. Afrikar jatorriko etorkinen bilakaera, EAeko geografia-eremuka


Erroldako datuen arabera, 2013ko urtarrilaren 1ean, afrikar jatorriko EAeko biztanleak 36.190 pertsona ziren; hau da, atzerritarren % 25. 1998tik gaur egun arte, afrikar jatorriko etorkinen taldea 13 bider handitu da (2.714 pertsona 1998an, eta 36.190, berriz, gaur egun). Epealdi horretan, EAeko biztanle atzerritarren kopurua bederatzi bider handitu da. Beraz, ikusten da afrikar jatorriko biztanleen kopurua-aren hazkunde erlatiboa handiagoa izan dela gainerako atze-ritarrena baino.

Afrikar jatorriko etorkinen multzoan, bi talde handi bereizten dira (1. eta 2. grafikoak): Magrebeoak eta Saharaz hegoaldeko Afrikakoak. Magrebeo etorkinen kopurua Saharaz hegoaldeko Afrikako etorkinen bikoitza da, eta proportzio hori konstantea izan da azken urte hauetan, 1998tik gaur egun (2013) arte.

Afrikarren lurralde-banaketa

Kopuru absolututan, Bizkaian daude kontinente horretako etorkin gehien (17.428), eta gero, Araban (10.806 afrikar).

1. grafikoa. Afrikar jatorriko EAeko biztanleriaren bilakaera, nazionalitate-talde handitan banatuta, 1998-2013. (Absolutuak)




Gipuzkoan daude, berriz, afrikar gutxien (8.676), nahiz eta zifren joerak aldatzen ari diren azken urteotan, 2013an batez ere. Hain zuzen, Bizkaian afrikar jatorriko pertsonen kopurua ez gora ez behera gelditu, eta Araban jaitsi ere egin badira ere, Gipuzkoan kopuruak gora egin du. Hori zenbait arrazoiren ondorioz gertatu da. Lehenik eta behin, nazionalitatea eskuratzeko prozesua oso lotuta dago etorkinek lurraldean daramaten denborarekin, eta Arabakoek daramate denbora gehien bizitzen bertan; beraz, pentsa daiteke nazionalitatea eskuratzeko prozesuaren ondorio dela afrikar nazionalitateko biztanle-kopurua gutxitzea, baina gehienek lurralde horretan bizitzen jarraitzen dute. Bestalde, azpimarratzekoa da, halaber, Gipuzkoan oraindik erlatiboki txikia dela jatorri horretako pertsonen kopurua, eta nolabait esateko, tartea dagoela handitzeko. Beste bi lurraldeetan, berriz, nolabaiteko saturazioa dago, Araban batez ere. Azkenik, ezin ditugu alde batera utzi krisiarekin lotuta gertatzen ari diren joera orokorrak. Izan ere, krisiak eraginda, fluxuak gutxitu egin dira eta itzultze-dinamikak ere gertatzen ari dira zenbait kasutan.

EAEko lurralde historikoei erreparatuta, afrikar jatorriko biztanleriaren banaketa eta bilakaera ez dira berdinak izan. Hain zuzen, Gipuzkoan eta Bizkaian afrikarren kopurua jaitsiz joan da 1998tik gaur egun arte, eta Araban, berriz, hazkundea izan du kopuru horrek: % 22,5ekoa zen 1998an, eta % 29,3koa, berriz, 2013an (4. grafikoa).

Garrantzitsua da jakitea zer ehuneko dagokien afrikar jatorriko biztanleei atzerritar guztien multzoan. Hain zuzen ere, alde hauek daude lurralde historiko batetik bestera: Araban, 10 atzerritarretik lau afrikar jatorrikoak dira (% 38,8); Bizkaian, atzerritarren % 23,8 soilik dira afrikarrak; eta Gipuzkoan, berriz, % 18,6.

Bilakaerari erreparatuta, Araban izan du hazkunderik handiena afrikarren ehunekoak, 14 puntu hain zuzen, 1998an


2. grafikoa. Afrikar jatorriko EAEko biztanleriaren bilakaera, nazionalitate-talde handitan banatuta, 1998-2013. (%)



Iturria: EIN, 2013ko behin-behineko datuak

atzerritarren % 24,8 baitziren, eta 2013an, berriz, % 38,3. Bizkaian, afrikar jatorriko biztanleriaren ehunekoa ia 6 puntu igo da etorkin guztien kopuruan, azken lau urteotan

3. grafikoa. Afrikar jatorriko biztanleriaren bilakaera, lurralde historikoka. 1998-2013 (%)



Iturria: EIN, 2013ko behin-behineko datuak


batez ere, eta Gipuzkoan, berriz, afrikar jatorriko biztanleria zertxobait igo da (3 puntu azken lau urteotan).

5. grafikoa, afrikar biztanleriaren bilakaerak azken urteotan –1998tik gaur egun arte– izandako hazkunde-faseak ikus daitezke, eta egiazta daiteke hazkunde hori ez dela homogeneoa izan denboran. Bi fase nagusi izan direla esan daiteke: lehenbizikoa (1998-2007) ekonomia-hazkundeko aldiarekin lotuta dago eta hor afrikar jatorriko biztanleen kopuruak etengabeko igoera izan zuen; bigarrenean (2008-2012), afrikar jatorriko biztanleriaren hazkundeak gora egin zuen, ekonomia-krisia sendotzearekin bat. 2013tik aurrera, badi-rudi hirugarren fasea hasi dela, jaitsiera izan baita lehen aldiz, Araban.

Beraz, paradoxikoa dirudien arren, estatuan krisia gertatzen den aldian dira igoera nagusiak. Heine batean, krisiaren eragina EAEn geroago iristea izan da hori gertatzearen arrazoia, beste autonomia-erkidego batzuetan bizi ziren atzerritarrek EAEn etortzea erabaki baitute, aukera hobeen bila eta krisiaren eraginari hobeto aurre egiteko asmoz. Horri dagokionez, ezin dugu ahaztu krisiaren aurretiko uneetan EAEn atzerritarren ehunekoa beste autonomia-erkidegoetakoa baino askoz txikiagoa zela, eta kolektibo hori nolabait birbanatu dela, ehuneko handiagoa zuten autonomia-erkidegoetatik ehuneko txikiagoa zuten erkidegoetara. Nolanahi ere, 2013an, jada hauteman daiteke krisiaren eragina fluxuetan, urte horretan oso nabarmen aldatzen baita 2008tik 2012ra bitarteko joera.

EAEn bizi den afrikar jatorriko guztizko biztanleriari dagokionez, kopuru absolutuei erreparatuta, gehienak Bilbo Handian (12.105) eta Arabako Lautadan (9.970) daude; hau da, EAEn afrikarren % 33,1 eta % 27,2, hurrenez hurren. Bilakaerari dagokionez, Arabako Lautadak 6 puntu-ko igoera izan du 1998tik 2012ra arte, eta Bilbo Handiko eskualdeak, berriz, jaitsiera izan du: 1998an, EAEn afrikarren % 38,7 zuen, eta 2012an, berriz, % 33,1. Arabako


4. grafikoa. Afrikar jatorriko biztanleriaren bilakaera atzerritarren guztizkoaren aldean, lurralde historikoko. 1998-2013.



Iturria: EIN, 2013ko behin-behineko datuak

mendialdean izan ezik, Arabako eskualde guztietan atzerritarren % 30etik gora da afrikar jatorrikoa, eta zenbait eskualdetan, % 40 baino gehiago ere badira; esaterako, Arabako Errioxan. Bizkaiko lurralde historikoan, Markina-

5. grafikoa. Afrikar biztanleriaren urtetik urterako hazkundeak EAEn lurralde historikoetan. (1998-2013)



Iturria: EIN, 2013ko behin-behineko datuak

1. taula. Afrikar jatorriko biztanleriaren banaketa eskualdeka. 1998tik 2012ra bitarteko bilakaera

	1998	2000	2002	2004	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Arabako Kantaurialdea	27	34	60	191	320	372	379	442	533	585	647
Gorbeialdea	1	2	11	28	63	70	93	117	114	141	197
Arabako Lautada	580	886	2.001	3.404	4.179	4.683	5.494	6.796	8.187	9.007	9.970
Arabako Mendialdea	1	6	8	38	43	42	45	46	43	40	54
Arabako Errioxa	2	7	27	33	118	170	212	279	343	416	473
Arabako Ibarrek	0	0	4	4	2	11	12	55	61	85	143
Araba, guztira	611	935	2.111	3.698	4.725	5.348	6.235	7.735	9.281	10.274	11.484
Donostialdea	320	497	660	968	1.188	1.323	1.565	1.931	2.083	2.206	2.339
Goierri	104	135	241	302	405	499	634	737	845	882	935
Tolosaldea	42	79	98	183	248	257	326	429	494	529	629
Urola Kosta	95	149	251	359	531	610	738	941	969	1.038	1.127
Debagoiena	13	35	60	117	152	177	215	261	290	376	446
Bidasoa Beherea	64	109	226	345	533	577	659	770	845	918	1.051
Debabarrena	107	157	249	352	412	491	644	775	883	1.014	1.255
Gipuzkoa, guztira	745	1.161	1.785	2.626	3.469	3.934	4.781	5.844	6.409	6.963	7.782
Arratia-Nerbioi	9	11	68	131	129	120	136	198	267	363	424
Durangaldea	179	217	345	508	792	982	1.248	1.581	1.803	2.110	2.580
Enkarterri	1	4	15	52	82	99	120	182	281	384	566
Gernika-Bermeo	14	15	29	64	108	122	151	203	263	370	525
Bilbo Handia	1.048	1.403	2.497	3.556	5.071	5.526	6.842	8.651	9.925	11.127	12.105
Markina-Ondarroa	39	69	176	399	426	511	577	669	690	740	778
Plentzia-Mungia	64	82	88	118	163	180	213	232	272	299	367
Bizkaia, guztira	1.354	1.801	3.218	4.828	6.771	7.540	9.287	11.716	13.501	15.393	17.345
EAE, guztira	2.710	3.897	7.114	11.152	14.965	16.822	20.303	25.295	29.191	32.630	36.611


Iturria: EIN, 2013ko behin-behineko datuak

Ondarroan, Gernika-Bermeon eta Durangaldean atzerritarren % 30etik gora da afrikar jatorrikoa. Kontuan izan behar da Araban eta Bizkaiko barrualdean Saharaz hegoaldeko Afrikako etorkinen kopurua handia dela. Gipuzkoan, Debabarreneko eskualdean atzerritarren % 30etik gora da afrikar jatorrikoa.

EAEko zer udalerritan daude afrikar jatorriko biztanle gehien? 3. mapan aurki dezakegu galdera horren erantzuna. EAEko afrikar biztanleen kontzentrazioa udalerrira aztertuz gero, zenbait joera zehatz daitezke:

- Afrikar biztanleen % 74 Bilbon eta Gasteizen bizi da. Baina, batez ere, Gasteizen dago kolektibo horren kontzentrazio handia; hain zuzen, atzerritarren % 37,5 afrikar jatorrikoa da. Bilbon, berriz, afrikar jatorrikoak atzerritarren % 23 dira.


1. mapa. EAEko eskualdeak, afrikar jatorriko biztanleria-bolumenaren arabera. 2012



Iturria: EIN, 2012ko datuak

- Bilbon eta Gasteizen atzetik, udalerrri hauetan daude afrikar gehien: Barakaldo, Donostia, Irun, Durango, Eibar, Sestao eta Santurtzi. Durangon, Eibarren eta Sestaon, atzerritarren % 40 afrikar jatorrikoa da.
- Afrikar gehien dituzten udalerriak horiek badira ere, EAEko beste udalerrri txikiago batzuetan, afrikar biztanleen tasa oso altua da, % 50etik gorakoa. Esaterako, Ermuan, Iurretan, Agurainen eta Berrizen.


2. mapa. Afrikar jatorriko biztanleriaren ehunekoa, atzerritarren guztizkoaren aldean, eskualdeka. 2012



Afrikar gehien dituzten EAEko udalerriei erreparatuta, marokoar nazionalitatekoak dira nagusi udalerrri gehienetan, salbuespenak badauden arren. Kostaldeko udalerrietan, arrantzak garrantzia duen lekuetan, afrikar jatorriko biztanle gehienak senegaldarrak dira. Horrela gertatzen da, esaterako, Lea Artibai eskualdean (Markina, Ondarroa, Berriatua), Mutrikun... Hor, batzuk inguruko lantegietan ari dira lanean. Berdin gertatzen da Urola Kostan (Orio, Getaria...) eta Hondarribian, arrantza garrantzitsua baita.

Iturria: EIN, 2012ko datuak

3. mapa. EAEko afrikar biztanleen banaketa, udalerrrika. 2012 (%)



Iturria: EIN, 2012ko datuak

2. taula. Afrikar gehien dituzten EAEko hamar udalerriak (nazionalitate nagusietan banatuta). 2012

	Biztanleria guztira	Atzerritarrak guztira	Afrika, guztira	atzerritarren gaineko afrikarren %	EAEko afrikarren gaineko %
Gasteiz	242.223	24.852	9.315	37,5	25,4
Bilbo	351.629	29.887	6.949	23,3	19,0
Barakaldo	100.369	6.520	1.607	24,6	4,4
Donostia	186.409	13.164	1.063	8,1	2,9
Irun	61.102	5.185	879	17,0	2,4
Durango	28.618	2.188	866	39,6	2,4
Eibar	27.507	1.757	709	40,4	1,9
Sestao	28.831	1.845	689	37,3	1,9
Santurtzi	47.129	2.167	610	28,1	1,7
Errenteria	39.324	2.174	529	24,3	1,4

	Absolutuak					Portzentajeak					
	Aljeria	Maroko	Nigeria	Senegal	Beste	Aljeria	Maroko	Nigeria	Senegal	Beste	Guztira
Gasteiz	2.302	4.101	781	330	1.801	24,7	44,0	8,4	3,5	19,3	100
Bilbo	857	2.543	633	712	2.204	12,3	36,6	9,1	10,2	31,7	100
Barakaldo	202	813	112	147	333	12,6	50,6	7,0	9,1	20,7	100
Donostia	168	598	23	68	206	15,8	56,3	2,2	6,4	19,4	100
Irun	147	467	19	69	177	16,7	53,1	2,2	7,8	20,1	100
Durango	52	180	160	112	362	6,0	20,8	18,5	12,9	41,8	100
Eibar	26	602	0	41	40	3,7	84,9	0,0	5,8	5,6	100
Sestao	52	264	111	134	128	7,5	38,3	16,1	19,4	18,6	100
Santurtzi	64	281	29	99	137	10,5	46,1	4,8	16,2	22,5	100
Errenteria	50	341	39	19	80	9,5	64,5	7,4	3,6	15,1	100

Iturria: EIN, 2012ko datuak


Nazionalitateen arabeko banaketa eta bilakaera

EAEko afrikarren nazionalitateari dagokionez, Maroko eta Aljeria dira nagusi. EAEko marokoar biztanleen kopuru handia nabarmentzekoa da (18.120). 2011tik, nazionalitate nagusia da (% 12,2). Bestalde, erroldatutako afrikarren erdia nazionalitate horretakoa da. Bigarren nazionalitate

nagusia Aljeria da, eta hirugarrena, berriz, Senegal. Lurralde historiko batetik bestera, zenbait alde daude:


Arabian, EAEko joera bera dago, eta lurraldeko bi nazionalitate nagusiak Maroko eta Aljeria dira. Marokoarren kopurua 1998tik etengabe igo den arren, data hartan marokoarrak

6. grafikoa. EAEko afrikar biztanleriaren bilakaera, nazionalitate nagusien arabera. 1998-2013



Iturria: EIN, 2013ko behin-behineko datuak

5. mapa. EAeko afrikar jatorriko biztanleria. Nazionalitate nagusien banaketa. 2013



afrikarren % 60,9 ziren, eta gaur egun, berriz, % 46,9 dira. Aljeriarrak, berriz, afrikarren % 17 izatetik % 25,6 izatera pasatu dira. Gipuzkoan ere, afrikarren nazionalitateari dagokionez, Maroko eta Aljeria dira nagusi. Bizkaian, Maroko, Aljeria, Senegal eta Nigeria dira nazionalitate nagusiak.

2. Gizonezkoen immigrazioa

Afrikar etorkin gehienak gizonezkoak dira, alde handiz. EAeko afrikar jatorriko etorkinen artean, marokarrak dira nagusi, eta horietatik % 34,5 soilik dira emakumeak. Berdin gertatzen da aljeriarren artean: % 37,7 soilik dira emakumeak. Etorikin gutxiagoko beste nazionalitate batzuetakoen artean ere gizonezkoak dira gehienak. Esaterako, senegaldarretatik, % 16,2 soilik dira emakumeak.

EAeko afrikar etorkinen nazionalitate batzuetan emakumeak gehiengoak badira ere (esaterako, Ekuatore Gineako etorkinetatik % 66,5 emakumeak dira), nazionalitate horietako etor-



Iturria: EIN, 2012ko datuak

3. taula. Afrikar jatorriko emakumeen indizea, nazionalitateen arabera, 2013 (%)

Gizonen nagusitasuna	% 30 arte	Gizonen gehiengoak	% 30-45	Oreka	% 45-55	Emakumeen gehiengoak	% 55-70
Tunis	25,7	Kongo	39,9	Angola	51,1	Ekuatore-Ginea	66,5
Ghana	23,6	Ginea-Bissau	39,3	Nigeria	47,9		
Ginea	23,4	Mauritania	39,0				
Mali	21,9	Aljeria	37,7				
Gambia	16,7	Kongoko Errep. Dem.	37,5				
Senegal	16,2	Gainerako Afrika	37,3				
		Burkina Faso	36,2				
		Kamerun	35,9				
		Maroko	35,4				

Iturria: EIN, 2012ko datuak

7. grafikoa. EAeko bertako biztanleen, atzerritarren, afrikarren, magrebtarren eta Saharaz hegoaldeko afrikarren biztanleria-piramidea. 2013




kinen kopurua txikiagoa da. Ekuatoreginearren kasua salbuespenetzkoa da afrikar etorkinen dinamika orokorrean, eta migrazio horren berezitasunek eta Ekuatore Ginearen eta Estatuaren arteko lotura historikoez dute eragina horretan. Izan ere, nazionalitate horretakoak aspalditik etorri dira, eta migrazio-booma gertatzean haien kopuruaren garrantzia txikitzen diren arren, nazionalitate nagusien artean zeuden 1990eko hamarkadaren amaieran. Halaber, zenbait nazionalitateetan, nolabaiteko oreka dago gizonen eta emakumeen kopuruaren artean; esaterako, angolarren eta nigeriarren kasuan.

3. Banaketa eta adin-taldeak

EAEn erroldatutako afrikarren adin-taldeak aztertuz gero, ikusten da gehienak (% 57,4) 25etik 44ra bitarteko adin-tartean daudela. Ehuneko hori eta gainerako atzerritarrena (% 53,7) oso antzekoak dira. Saharaz hegoaldeko Afrikakoek soilik gaintzen dute ehuneko hori, hamarretik sei (% 61,3) adin-tarte horretan baitaude.

15 urtetik beherakoen taldea azpimarratzekoa da, magrebtarren artean altua baita adin-tarte horretako ehunekoak (% 21,9), bai Saharaz hegoaldeko Afrikako etorkinen alde-



Iturria: EIN, 2013ko behin-behineko datuak

an (% 16,9), bai gainerako atzerritarren aldean (% 16,2), bai bertako biztanleriaren aldean (% 14,6).

Taldearen integrazio-dinamikak

EAEn bizi diren Atzerriko etorkinen gaineko inkesta (AEI) oinarri hartuta, EAeko afrikarren taldearen administrazio-, lan-, hezkuntza-, bizitegi-egoera eta migrazio-proiektua aztertuko ditugu.

Administrazio-egoera. Afrikarren taldearen administrazio-egoeran aldeak daude, etorkinen jatorriaren arabera.

Afrikarretatik, EAEn 29.291 pertsonak dute bizileku-baimena. Datu hori erroldako datuekin alderatuz gero, erregularizazio-tasa % 79,4 ingurukoa da.

Lurralde historikoei dagokienez, aipatzekoa da Arabako egoera, hamar afrikarretik bederatzi baino gehiago baitaude erregularizatutako egoeran. Kopuru horiek txikiagoak dira

Gipuzkoan (% 77,9) eta Bizkaian (% 73,1). Alde horiek lotuta daude lurraldean bizitzen emandako denborarekin: zenbat eta denbora gehiago eraman bizitzen, orduan eta hobea izango da administrazio-egoera. Araban, afrikarrek denbora gehiago daramate bizitzen beste bi probintzietan baino, eta horregatik da erregularizazio-tasa handiagoa. Egonkortasun-continuum esaten diogu horri Ikuspegin duela urte batzuk: bizitzen emandako denbora zenbat eta handiagoa izan, orduan eta hobea izango dira bai administrazio-egoera bai integrazio-adierazleak. EAEko afrikar jatorriko etorkinen nazionalitateen artean, marokoarrak dira nagusi, eta herrialde horretako erregularizazio-tasa % 99,6koa da Araban, eta % 82koa eta % 83,8koa Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren. Senegaldarren egoera oso bestelakoa da, irregularitasun-tasa handiagoak baituzte gainerako nazionalitate nagusikoek baino. Hain zuzen ere, senegaldarren % 30 egoera irregularrean dago, nahiz eta alde handiak dauden lurralde historiko batetik bestera. Horretan eragina du, beste behin, bizitzen daramaten denbora. Senegaldarrak, oro har, marokoarrak baino geroago etorri dira, eta hori erregularizazio-tasan adierazten da. 8. grafikoa, administrazio-egoera erregularrean dauden afrikarren ehuneko ageri da, nazionalitateka, bizitzen daramatzaten urteen arabera.

Lan-egoera. Magrebtarren jardura-tasa (% 64,5) txikiagoa da atzerritarren batez bestekoa baino (% 75,5), baina batez ere, emakume magrebtarren artean da ehuneko hori oso txikia, hamar emakumetik lau baino gutxiago baitira potentzialki aktiboak. Saharaz hegoaldeko Afrikako artean, ordea, guztiz kontrakoa gertatzen da. Haien jardura-tasa % 80,6koa da, eta emakumeena, % 73,2koa. Emakume magrebtarren jardura-tasa hain txikia izatearen atzean kultura-arrazoia daude, batez ere.


4. taula. EAEko afrikar biztanleriaren atzerritarren tasak eta erregularizazio-tasak, nazionalitateka eta lurralde historikoka, 2012

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Afrika	79,4	90,7	73,1	77,9
Angola	97,7	73,8	106,5	50,0
Aljeria	73,6	87,7	60,5	64,9
Benin	100,0	111,1	92,9	50,0
Burkina Faso	90,5	84,6	111,1	105,6
Cabo Verde	92,6	50,0	87,2	115,4
Kamerun	60,9	70,5	54,1	72,7
Kongo	28,8	31,4	28,8	26,3
Boli Kosta	70,4	98,8	50,5	55,0
Egipto	94,2	104,3	113,0	65,2
Etiopia	45,7	0,0	44,0	62,5
Gambia	69,1	113,2	55,0	61,5
Ghana	82,1	84,4	80,4	85,4
Guinea	80,6	100,7	75,7	35,1
Guinea Bissau	37,6	85,7	34,3	50,0
Ekuatore Guinea	77,7	68,6	82,4	73,7
Kenia	70,1	74,4	53,3	76,9
Mali	100,9	120,0	97,9	75,3
Maroko	87,5	99,6	82,0	83,8
Mauritania	67,4	81,8	61,4	41,6
Nigeria	57,5	61,2	54,0	63,5
Kongoko Errep. Dem.	103,2	157,1	94,2	255,6
Senegal	69,4	70,9	68,3	72,2
Sierra Leona	66,7	150,0	54,5	77,8
Hegoafrika	100,0	100,0	63,6	200,0
Togo	72,2	200,0	42,9	150,0
Tunis	93,8	127,3	77,3	125,9
Beste batzuk	68,7	127,3	76,3	42,6
Libia	79,2	125,0	80,0	40,0
Gainerako Afrika	70,3	126,7	76,9	42,3

Iturria: EIN eta Lan eta Gizarte Segurantza Ministeritza

Afrikarren langabezia-tasak, oro har, EAEko atzerritarren altuenak dira. Hain zuzen, Saharaz hegoaldeko afrikarren zein magrebtarren langabezia-tasak % 50etik gorakoak dira,

8. grafikoa. Administrazio-egoera erregularra, afrikar jatorriko EAEko biztanleriaren artean, nazionalitate nagusika, bizitzen emandako urteen arabera (%)



Iturria: Atzerriko etorkinen gaineko inkesta. 2010

eta ez dago alde handirik sexu batetik bestera. Noski, talde horretako okupatutako biztanleriaren ehunekoa txikiagoa da etorkinen guztien taldekorena baino. Baina, batez ere, emakume magrebtarren egoera da oso deigarria, % 20ra heltzen ez diren jarduera-tasak baitituzte, lehen aipatutako inaktibitate-tasa altuen ondorioz.

Afrikarrek zerbitzuen sektorean jarduten dute, batez ere. Hala ere, Saharaz hegoaldeko afrikarrak sektore hauetan jarduten dute: zerbitzuen sektorean, industrian, nekazaritzan eta eraikuntzan. Magrebtarrek zerbitzuetan, industrian eta eraikuntzan jarduten dute, batez ere, eta zerbait gutxiago, nekazaritzan.

9. grafikoan, oso datu interesgarriak ageri dira, aztertutako bi taldeen arteko alde handiak ikusten baitira, lan-merkatuan jarduten duten jarduera-sektoreei dagokienez. Lehen datu aipagarria da handiagoa dela eraikuntzan jarduten duten magrebtarren ehunekoa Saharaz hegoaldeko afrikarrena baino: % 25,3 eta % 9,4, hurrenez hurren. Alde hori, neurri handi batean, lan-merkatuko nitxoetako laneratzeko prozesuen ondorio da, prozesu horiek lotuta baitaude etorkinek bizitzen daramaten denborarekin. Hain zuzen, lan-merkatuan sartzeko ohiko prozesua nekazaritzan hasia izaten da, eta geroago, eraikuntzara aldatzea, eta aukera izanez gero, industriarekin lotutako beste sektore batzuetara. Magrebtarrek EAEn bizitzen denbora gehiago daramatenez, aukera gehiago dituzte eraikuntzan jarduteko. Emakumeei dagokionez, industrian, Saharaz hegoaldeko Afrikako emakumeen ehunekoa handiagoa da magrebtarren baino. Kasu horretan, kontuan izan behar da Saharaz hegoaldeko Afrikako emakumeen kopuru absolutua txikia dela; beraz, datuak zuhurtziaz hartzekoak dira, lagina oso mugatua baita.

Magrebeko herrialdeetako gizonetakoek jarduten duten sektoreak hauek dira: eraikuntza (% 25), merkataritza (% 22), metalurgia (% 6), garraioa eta komunikazioak (% 6,9)...

Saharaz hegoaldeko Afrikako gizonetakoek dagokienez, metalurgia-industria (% 17,2), arrantza (% 12,9) eta merkataritza (%13,3) dira sektore nagusiak.

Lanean ari diren emakume afrikarrek sektore hauetan jarduten dute: ostalaritza (% 37,2), merkataritza (% 23) eta enpresetarako zerbitzuak (% 13,3). Saharaz hegoaldeko Afrikako emakumeak, berriz, sektore hauetan ari dira lanean: osasungintza eta gizarte-zerbitzuak (% 23,3), etxe-zerbitzua (% 20,1) eta ostalaritza (% 19,2). Nolanahi ere, kontuan izan behar da afrikar jatorriko biztanleriaren okupazio-tasa oso txikia dela.


Hezkuntza. Magrebeko eta Saharaz hegoaldeko Afrikako 10 pertsonatik bik ez dute ikasketa aipagarririk. EAEn atzeritarren artean, berriz, % 8,9k ez du ikasketa aipagarririk; beraz, alde handia dago talde batetik bestera. Baina magrebtar emakumeen egoera da azpimarratzekoa, batez bestekotik beherako prestakuntza-adierazleak baitituzte. Hain zuzen, emakumeen % 32,5ek ez du ikasketa aipagarririk (gizonetako % 9k). Saharaz hegoaldeko Afrikako biztanleriaren egoera orekatuagoa da.

Magrebtarren gehiengoak lehen hezkuntzako (% 31,9) eta bigarren hezkuntzako (% 27,9) ikasketak ditu, eta egoera hori eta Saharaz hegoaldeko Afrikako biztanleriarena oso antzekoak dira.

Lanbide Heziketako I., II. eta III. mailako ikasketek dagokionez, horrelako ikasketarik duten afrikar biztanleen ehunekoa txikiagoa da atzeritarren batez bestekoarena baino (% 18,2). Hain zuzen, magrebtarren artean, hamarretik batek soilik ditu maila horretako ikasketak, eta Saharaz hegoaldeko afrikarren artean, berriz, % 6,4k.

Bizitegi-esparrua. Afrikar jatorriko biztanle gehienak alokairuan bizi dira, baina aldeak daude magrebtarren eta Saharaz hegoaldeko afrikarren artean. Magrebtarren % 74k aukera

9. grafikoa. Afrikar jatorriko EAEnko biztanleria, jarduera-sektoreka eta sexuka. 2010



hori baliatzen du, eta Saharaz hegoaldeko afrikarren % 50 bizi da erregimen horretan. EAEn, atzerritarren % 60,2 bizi da alokairu-erregimenean.

Bestalde, Saharaz hegoaldeko afrikarren % 37 etxebizitza konpartituan bizi da. Magrebtarren artean, hamarretik bat soilik bizi da egoera horretan. Datu hori azpimarragarria da, etorkinen % 9 soilik bizi baita modalitate horretan.

Atzerritarren % 20 jabetzako etxebizitzan bizi da. Hala ere, kopuru hori oso txikia da afrikar jatorriko biztanleen artean: magrebtarren % 12,9k baino ez du etxebizitza jabetzan, eta Saharaz hegoaldeko afrikarren % 9,9k. Magrebtarren gutxiengoa (% 2,2) doako edo lagatako etxebizitzan bizi da. Saharaz hegoaldeko afrikarren kasuan, ehuneko hori % 3,4koa da, etorkinen batez bestekoa baino txikiagoa. Orain arte, etxebizitza jabetzan izatea etorkinen integrazio-eta egonkortasun-adierazletzat hartu izan da, baina higiezin burbuilaren eztanda gertatu denetik, ideia hori zalan-tzan jar daiteke. Ohiko interpretazioari eutsiz gero, badirudi bizitegi-esparruan afrikarren egoera prekariotasun handiagokoa dela gainerako atzerritarrena baino.

Gizarte-kapitala – sare sozialak. Afrikar jatorriko biztanleriak EAEn ingurunearekin dituen harremani zein gizarteko eta elkartegintzako parte-hartzeari erreparatzen badiegu, magrebtarren % 87,4 inguruk dio ez duela arazorik bertako biztanleekin. Ehuneko hori zertxobait altuagoa da Saharaz hegoaldeko afrikarren artean (% 92,2). Etorkinekin arazoak badituzten galdetuta, ehuneko horiek behera egiten dute

zertxobait. Gizarteko eta elkartegintzako parte-hartzeari dagokionez, Saharaz hegoaldeko afrikarrek talde informaletan parte hartzen dute edo haietan integratuta daude –hain zuzen, hamar senegaldarretik hiru (% 27,3)–. % 33,3k, berriz, etorkinei laguntzeko erakundeetan parte hartzen du. Datu hori deigarria da, gainerako nazionalitatekoen artean parte-hartzea urria baita (% 4tik beherakoa), dela talde informaletan, dela etorkinei laguntzeko erakundeetan.


Migrazio-proiektua. Itxaropenek zerikusi handia dute migrazio-proiektuetan; beraz, funtsezkoak dira integrazio-prozesuetan. Hori dela eta, magrebtar jatorriko biztanleei gaur egun zer helburu dituzten galdetzean, gehienek (% 55,3) bizimodu berria hasi nahi dutela adierazten dute, eta horietatik, % 92k dio EAEn jarraitzeko asmoa duela hurrengo 5 urteko epean, eta % 84,7k, berriz, 5 urte baino gehiago ere bai. Senegaldarren kasuan, zenbatekoak antzekoak dira, EAEn bizimodu berria hasteari dagokionez. Hala ere, EAEn hurrengo bost urteetan edo bost urtetik gorako epean jarraitzeari dagokionez, ehunekoak zertxobait txikiagoak dira: % 89,2 eta % 65, hurrenez hurren. Gai horri dagokionez, aipatu behar da lekuan bizitzen emandako denbora faktore erabakigarria dela migrazio-proiektua zehazterakoan. Hasieran, aldi baterako egonaldiak izaten dira nagusi, eta egonaldia zenbat eta gehiago luzatu, orduan eta gehiago sendotzen da harrera-lekuan behin betirako gelditzeko ideia, bai gizarte- eta lan-egonkortasunaren ondorioz, bai harrera-herrialdean sustraitzea errazten duten beste faktore batzuen ondorioz (seme-alabak izatea, etxebizitza jabetzan edukitzea, hipoteka...).

Bertako biztanleriaren pertzepzioa afrikar jatorriko biztanleei buruz


Saharaz hegoaldeko Afrikako taldea begikotasun handiena sorrazten duten lehenbiziko hiru nazionalitateen artean dago. Magrebtarren taldea, ordea, begikotasun txikiena sortzen du (10etik 3,5).

Bilakaerari dagokionez, ez dago alde handirik. Nolanahi ere, oro har, euskal gizarteak begikotasun-maila txikiagoa du Magrebeko nazionalitatekoenganako, eta pertzepzio horrek denboran iraun du, eta gaur egun zertxobait txikiagoa ere bada. Saharaz hegoaldeko afrikarrenaganako begikotasun-maila, ordea, handiagoa da, batez bestekoa baino handiagoa ere bai, eta azken urteotan zertxobait gora egin du.

10. grafikoa. Etorkinenganako begikotasun-maila, jatorriko herrialdearen arabera



11. grafikoa. Etorकिनenganako begikotasun-mailaren bilakaera, nazionalitate-talde handien arabera. 2007-2012



Iturria: Barometroa 2012. Ikuspegi

Ondorioak

- EAEn bizi diren afrikar gehienak Magrebeko herrialdeetakoak (24.217) dira batez ere, eta neurri txikiagoan, Saharaz hegoaldeko herrialdeetakoak (11.993). Bigarren talde horretan, senegaldarrak dira nagusi (3.349 pertsona). Bestela esanda, afrikarren taldean, magrebtarrak dira gehiengoa (% 67,5), nabarmen. Saharaz hegoaldeko afrikarrak, afrikar etorkinen % 32,5 dira.
- Atzerritarren multzo osoan, Araban da handiena afrikarren ehunekoa (% 38,3). Bizkaiko atzerritarren % 23,8 dira, eta Gipuzkoako % 18,6. Arabako Errioxan, atzerritarren % 40tik gora da afrikar jatorrikoa. Eskualde horren atzetik daude Markina-Ondarroa (% 39,8) eta Arabako Lautada (% 38,2).
- Afrikar jatorriko biztanlerian gizonezkoak dira gehiengoa, nabarmen, EAEn bizi den talde horretako % 34,2 soilik baitira emakumeak. Hain zuzen, magrebtarren % 35,2 dira emakumeak, eta ehuneko hori zertxobait txikiagoa da Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeetako artean (% 32,1). Kopuru horiek oso urrun daude EAEko gizonen eta emakumeen kopuru orokorretatik (% 48,6 inguru emakumeak dira).
- Afrikarren taldeak ditu ahultasun- eta prekariotasun-maila altuenak zenbait arlotan; esaterako, hauetan: lanmerkatuan sartzea, bizitegi-egoera eta ikasketa-maila. Beraz, ahuleziak ditu integrazioarako alderdi garrantzitsuetan.
- Afrikarren taldean, zenbait alde daude magrebtarren eta Saharaz hegoaldeko afrikarren artean. Integrazio-dinamikan, joera hauek zehaztu ditugu:
 - *Aldeak jarduera-tasan.* Magrebtarrek jarduera-tasa txikiak dituzte (emakume magrebtarrek batez ere), eta Saharaz hegoaldeko afrikarrek, berriz, altuak.
 - *Aldeak bizitegi-esparruan.* Bizitegi-esparruarekin lotutako joerak aztertzean, ikusten da magrebtarrek eta atzerritarren multzo orokorrak antzeko joerak erakusten dituztela, alokairuari eta etxebizitza konpartuari dagokionez. Saharaz hegoaldeko afrikarren joerak, berriz, ez datoz bat etorkinen multzo orokorrenekin eta magrebtarren joerekin. Hain zuzen ere, senegaldarren % 36 etxebizitza konpartituan bizi da, eta % 50, berriz, alokairu-erregimenean.
 - *Gizarte-kapitala – sare sozialak.* Nazionalitate guztien artean, Saharaz hegoaldeko afrikarrak –eta hain zuzen, senegaldarrak– nabarmentzen dira talde informaletan (% 27,3) eta etorkinei laguntzeko erakundeetan (% 33,3) parte hartzeari dagokionean. Kontuan izan behar da etorkinen % 3,3 soilik dagoela integratuta etorkinei laguntzeko horrelako erakundeetan (magrebtarren kasuan, adibidez, % 4).
- Aldi berean, bertako biztanleriak talde horrenganako begikotasun-mailarik txikiena du, magrebtarrenaganako batez ere, afrikarren taldean gehiengoa den talde horrenganako.
- Bestela esanda, afrikarren taldea eta, zehazki, magrebtarrena, egon daitekeen egoera txarrean dago: gabezia handiak dituzte gizarte-integrazioarako prozesurako, eta zailtasunak ere bai, harrera-gizarteko sektore batzuek haiek onartzeko.
- Horrelako testuinguruan, talde horrek izan behar du politika- eta gizarte-instantzietatik ezartzen diren integrazio-politikearako eta neurrietarako xede-taldeetako bat.